



**LIBURUTEGI NAGUSIA  
BIBLIOTECA GENERAL**

Gida

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS

«Liburutegiek sartuta dauden erakundearen helburuak lortzen laguntzeko ardura dute, bai eta haren eginkizun nagusiak babestekoa ere; besteak beste: programak eta politikak diseinatzea, administrazio- eta arautze-jarduerak, aholkularitza eta ikerketa-programak.»

*Guidelines for libraries of government departments.  
The Hague: IFLA, 2011*

## **KOKAPENA**

Lakua II eraikina,  
beheko solairua, «Q» aldea  
Donostia-San Sebastian kalea, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz.

## **ORDUTEGIAK**

Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 14:00.  
Eusko Jaurlaritzako langileentzat,  
gainera, urtarriletik maiatzera bitarte:  
astelehenetik ostegunera: 14:30 - 16:15.

### **Liburutegiaren web gunea:**

[www.euskadi.eus/ejgvbiblioteca](http://www.euskadi.eus/ejgvbiblioteca)

### **Lineako katalogoa:**

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

### **Harremanetarako telefonoak**

945 018 560 – 945 019 052

### **Posta elektronikoa:**

[ejgvbiblioteca@euskadi.eus](mailto:ejgvbiblioteca@euskadi.eus)

### **Jarrai gaitzazu Twitter-en:**

@bibliotekaejgv



# INFORMAZIO OROKORRA

Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia Ogasun eta Finantza Sailari dago lotuta organikoki.

Liburutegi Nagusia informazio-baliabideak biltzen dituen gunea da, eta zientzia juridikoetan, zientzia ekonomikoetan, Europar Batasunean, Euskal Herriaren historian, autonomia-erkidegoetan eta Artxibo Nagusiari laguntzeko dokumentazioan espezializatuta dago.

Liburutegiak 1 650 m<sup>2</sup> ditu bi solairutan (irakurgela eta gordailuak), hala nola irakurtzeko 18 leku, Internet konexioa duten 4 ordenagailu, mikrofilmen irakurgailu-erreproduzigailu bat (papera eta digitala) eta posta elektronikorako sarrera duen fotokopiagailu digitalizatzailea.

## EGINKIZUNAK

Liburutegiaren eginkizun nagusiak honako hauek dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen informazio-eskaerak betetzea, eta, horretarako, aukera ematen die ikerketak egin, aholkuak eman, erabakiak hartu eta helburu instituzionalekin zerikusia duten gainerako jardueretarako behar duten informazio zientifikoa, teknikoa eta profesionala eskuratu eta zabaltzeko, eta, gainera, beste kanpo-ikertzaile eta aztertzaile batzuek haiek erabili ahal izatea ziurtatzen du, ahal duen neurrian.

## ERABILTZAILEAK

Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiak bere zerbitzuak eskaintzen dizkie EAEko Administrazio Publikoko langileei, eta aldeaz aurretik eskaera egiten duten herritar guztiei.

## FUNTSAK

Liburutegiaren funtsak honako hauek dira: 72 439 monografia eta erreferentziazko lan 4 023 argitalpen seriatu eta buletin ofizial guztiak.

## ARAU-ESPARRUA

- Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legea (1990eko abuztuaren 6ko EHAA, 157. zenbakia).
- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa (2007ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zenbakia).
- 192/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa (2013ko apirilaren 18ko EHAA, 74. zenbakia).
- Agindua, 2011ko urriaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, argitalpenen, erreprodukzioen eta dokumentazioen kopiak egiteagatikoko prezio publikoak ezartzeko dena (2011ko abenduaren 2ko EHAA, 229. zenbakia).

# ZERBITZUAK

## **Katalogo informatizatua kontsultatzea:**

internetetik, gure administrazioaren intranetetik (Jakina) edo Liburutegiko ordenagailuetatik kontsulta daiteke.

## **Kontsultak eta informazio bibliografikoa:**

kontsultak aurrez aurre, telefonoz eta posta elektronikoz egin daitezke. Irakurgelako langileek gai hauen inguruan egindako kontsultak erantzungo dituzte: bildumak, katalogoa, maileguak, instalazioak, ordutegiak, erabiltzeko arauak, e.a.

**Irakurgela:** irispide librekoa da. Edonork erabil dezake, Eusko Jaurlaritzako langileek, zein herritarrek.

**Mailegua:** EAEko Administrazio Publikoko langileek bakarrik erabil dezakete, baldin eta zerbitzu honetan alta emanda badaude. Alta emateko jarri harremanetan gurekin.

Gehienez ere 5 dokumentu (edozein materialetan edo euskarritan) har daitezke maileguan 15 egunez; eta dokumentu horiek inork erreserbatu ez baditu, beste 15 egunez luza daiteke mailegua.

**Maileguan dauden aleen** erreserba.

**Maileguak berritzea.**

**Dokumentuak eskuratzea:** erabiltzaileen interesekoak diren aldizkarien artikulak edo beste argitalpen batzuk.

**Dialnet:** hispaniar literatura zientifikoan oinarritutako munduko atari bibliografikorik handienetakoa da; batik bat, Gizarte Zientzien, Zientzia Juridikoen eta Giza Zientzien arloetakoa.

Kalitatezko informazioa bilatzeko ezinbesteko tresna da. Elkarlanean egindako proiektua da, eta baliabide eta zerbitzu dokumental hauek ditu: datu-baseak, alerta bibliografikoen zerbitzua, hemeroteka birtuala eta testu osoko dokumentuen biltegia.

Abantaila horietaz baliatzeko, ezinbestekoa da erregistratzeko prozesuan Eusko Jaurlaritzako posta elektronikoa ematea.

**Eskurapen berrien buletina:** liburutegian sartzan diren eskurapen guztien berri ematen du hileroko. Liburutegiaren web gunean bertan kontsulta daiteke.

**HIH (Hautatutako Informazioaren Hedapena):** nor bere intereseko dokumentuei buruzko informazioa jaso ahal izango du (liburuak, artikuluak ...), betiere liburutegiarekin aurrez adostutako arlo tematiko batzuen barruan.

**Liburutegien arteko mailegua:** zerbitzu honen bidez, Bibliotekak katalogoan aurkitzen ez dituzun dokumentuak eska daitezke.

**Erosketa proposamena:** EAEko langileen eginkizunak egoki betetzeko interesgarriak diren dokumentuak erosteko eska daiteke.

**Erreprografia:** liburutegian fotokopiagailuak daude bertako edozein dokumentu erreproduzitzeko, betiere, Jabetza Intelektualari buruzko Legediak ezarritakoa betez: 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua eta 23/2006 Legea eta egile eskubideak.

Herritarrentzako fotokopien prezioa, erreproduzioak egiteko prezio publikoen aginduak ezartzen duena izango da.

**Erabiltzaileen prestakuntza:** aurrez aurreko bisita gidatuak daude euskaraz zein gaztelaniaz; horretarako, jarri harremanetan gurekin.

Gainera, irakurgelaren bisita birtuala egin daiteke gure web gunearen bidez.

# BILDUMA

Bilduma bibliografikoa osatzen duten liburuak, aldizkariak, eta beste dokumentu batzuk, irakur daitezke irakurgelan.



**Biblioteka**

Liburutegiaren web gunean katalogo osoa ere kontsulta dezakezu: hemeroteka, azken eskurapenak, Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak eta gomendatutako bibliografiak.

Bilduma honako hauek osatzen dute:

## Monografiak

72 500 monografia eta erreferentziazko lan ditu irispide libreko irakurgelaren eta mugatutako irispina duten gordailuen artean. Irakurgelako dokumentuak SHU (Sailkapen Hamartar Unibertsala) eskemari jarraituta, gaika ordenatuta daude.

- erreferentzia orokorreko lanak (hiztegiak, entziklopediak, direktorioak, urtekariak, e.a.).
- eskuliburuak eta espezializatutako lanak honako gai hauetan: Zientzia juridikoak, Zientzia ekonomikoak, Europar Batasuna, Euskal Herriaren historia, autonomia erkidegoak, e.a.
- eguneroko gaiei buruzko monografiak.

### **Argitalpen seriatuak**

4 000 lan ditugu. Irakurgelan hauek kontsulta daitezke:

- informazio orokorra eta hedapena.
- aldizkari zientifikoak, Liburutegi Nagusiko bost arlo espezifikoei buruzkoak.
- estatuko prentsa (egungoa eta atzera begirakoa).
- prentsa ekonomikoa.
- erakundeen urtekariak eta memoriak

Horiek guztiak Liburutegi Nagusiaren lineako katalogoan (OPAC) kontsulta daitezke.

### **Datu-baseak eta aldizkari elektronikoak**

Liburutegiak Eusko Jaurlaritzako langileen eskura jartzen ditu harpidetzan dituen argitalpen elektronikoak, e-aldizkariak zein lineako datu-baseak.

Gure web gunean duzu zerrenda osoa.

### **Bibliografia-erakusketak**

Funts bibliografikoak ezaguarazteko asmotan, Liburutegiak bibliografi-erakusketak antolatzen ditu irakurgelan aldizka.

Laguntzeko, irakurketa-gida inprimatzen da eta Liburutegiaren web gunearen bitartez ere kontsulta daiteke.



## LIBURUTEGI NAGUSIAK HONAKO HAU GOMENDATZEN DU:

---

- Dokumentazioaren inguruko zalantzarik izanez gero, guregana jotzea.
  - Gaurkotasun-gaiei buruzko bibliografia-erakusketak bisitatzea.
  - Euskal prentsako liburuen eta liburutegien gaineko berriak irakurtzea.
  - Bikoiztutako liburu eta aldizkarien eskaintzen berri izatea.
  - Unean-unean antolatzen ditugun ekintzetan parte-hartzea: Liburuaren eguna, azoka txikia, e.a.
-

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

**Edizio data:** 2015eko uztaila. **Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

**Itzulpena:** Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia. **Diseinu eta maketazioa:** Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia.